

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Aiarako Udaleko alkateak emandako 2020ko azaroaren 9ko Dekretuaren laburpena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko udalen mendeko ikastetxeetan musika eta dantza jardueretara joateko dirulaguntzen deialdia egin zen 2021. urterako

DDBN(Identif.): 593517

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 38/2003 Legeak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/593517>).

Lehenengoa. Onuradunak

Diruz lagunduko den jarduera hasi aurretik, gutxienez sei hilabetez segidan Aiarako udalerrian errolatuta dauden eta oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonak.

Dena den, adingabeen kasuan, laguntzaren eskatzailea diruz lagunduko den jardueran parte hartzen duen adingabearen aita, ama edo legezko tutorea izango da.

Bigarrena. Xedea

Deialdi honen xedea da Aiaran errolatuta dauden pertsonak musika eta dantzako jardueretan izena emateagatik sortutako gastuak ordaintzea, baldin eta jarduera horiek ez badira Aiarako udalerrian eskaintzen eta EAEko udaletako zentroetan eskaintzen badira.

2020ko irailetik 2021eko ekainera arte egindako jarduerak lagunduko dira diruz.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Aiarako Udalak eskaintzen ez dituen musika eta dantza jardueretara joateko laguntzak ematea arautzen duen ordenantzan daude jasota dirulaguntza horiek emateko oinarri arautzaileak. Ordenantza hori Aiarako Udalak onetsi zuen eta ALHAOn argitaratu zen, 42. zenbakian, 2020ko apirilaren 15ean.

Oinarriak eta eskaera eredia Aiarako Udalaren web orrian daude eskuragarri: www.aiarako-udala.eus.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdia 6.000,00 euroekin dago hornituta.

Hauxe izango da, gehienez, dirulaguntzaren zenbatekoa: Udalak edo haren mendeko erakundeak udalerrri horretan errolatutakoei aplikatzen dizkien tarifen eta onuradunari aplikatzen dizkion tarifen arteko aldearen ehuneko 100, kalterik egin gabe aurreko artikuluan ezarritakoari.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

hogei egun, oinarriak ALHAOn argitaratzen direnetik aurrera.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskaeraren eranskin guztiak beteta eta adierazitako agiriak aurkeztu beharko dira.

Arespalditza, 2021eko azaroaren 4a

Alkatea

GENTZA ALAMILLO UDAETA